

## Hazkunde ekonomikoa ingurumen-arazoan abiapuntu

Gehiegizko kontsumoa eta kapitalismoan oinarritutako aberastasuna dira ingurumen-arazoak sortzen dituzten faktore nagusiak, ikertzaile-talde batek [Nature Communications aldizkarian argitaratutako berrikuspen-artikulu baten arabera](#).

Diotenez, ingurumen-arazoei aurre egiteko “ezin daiteke teknologia soilan oinarritu”, hobekuntza teknologikoak ez direlako gai kontsumoaren erritmoari eusteko. Gehiegizko kontsumoan zein aberastasunean oinarriturako bizimoduak aldatu beharra dagoela uste dute. Ohartarazi dute norbanakoen ekintzetatik harago doala arazoa, eta, horregatik, ekoizpen-sisteman “egiturazko aldaketa sakonagoak” egin behar direla diote.


Alternatiba modura zenbait mugimenduk egindako proposamenak aztertu dituzte; besteak beste, zergen erreforma, oinarrizko errentak eta gehieneko soldatak proposatzen dituzte, baita “erreforma liberalak” bertan behera uztea, “hiritarren asanbladak” eratzea edota zenbait produktu debekatzea ere. Norabide horretan, Extinction Rebellion, Cooperativa Integral Catalana eta haien taldeak jarri dituzte eredutzat. ●



ARG.: Micheile Henderson /Unsplash.

## COVID-19an aditu diren emakumezkoen hutsunea salatu du BMJ aldizkariak

Denok galtzen dugu emakume adituen iritziak ez direnean entzuten; [hori dio British Medical Journal aldizkariaren Genero Dibertsitatearen Taldeak](#). Haren esanean, COVID-19ak agerian jarri du gizartean dagoen genero-bereizkeria, eta medikuntza eta akademia ez dira salbuespenak.



COVID-19aren krisian emakumeak baztertu direla salatu du BMJk. ARG.: Osasunaren Mundu Erakundea.

Taldeak salatu duenez, emakumeak baztertuak izan dira diskurtso eta erabakiguneetan, ikerketan eta argitalpenetan. Munduan, osasungintzan ari diren langileen % 70 baino gehiago dira emakumezkoak, eta, hala ere, Osasunaren Mundu Erakundearen COVID-19aren Larrialdi Batzordean % 20 baino ez dira. Herrialde askotan, larrialdiari aurre egiteko eratutako taldeetan are txikiagoa da ehuneko hori: % 16 Txinan, % 10 AEBn eta % 0 Italian.

Halaber, gizonezkoak gailendu dira COVID-19ari buruzko ikerketetan, eta aldizkariak ere haiek egindako lanak argitaratu dituzte batez ere.

Emakumezkoak baztertzea COVID-19ari esku bat atzean lotuta aurre egitearen parekoa dela iritzi dio BMJko taldeak, eta aldarrikatu du emakumeen diskurtsoa aintzat hartzeko jarrerak bultzatu behar direla. Bestela, funtsezko ikuspegiak galtzen dira, eta desberdinkeriak betikotzeko edo areagotzeko arriskua dago. ●